



Andoaingo Udala

Alkatearen ebazpena

Kontuan hartuta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean, 7. artikuluan, eta Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 dekretuan, udalei izendatzen zaiela, eskumen propio gisa, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatze eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

Kontuan hartuta, Andoaingo Udaleko Udaltzakoak, Osoko Bilkuran batzartuta, 2020ko ekainaren 25ean izandako ohiko batzaraldian, aho batez, onartu zuen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2020-2025) dokumentuan, oraindik ere indarrean duguna, Udalak lagunduko dituen hainbat ekintza jasotzen direla: aisialdiko eta kirol hezitzaileei zuzendutakoak, eremu sozio-ekonomikoko jarduerari, kultur ekimenei...

Kontuan hartuta indarrean den Andoaingo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berariazko ordenantza, 2025eko martxoaren 18ko GAO n argitaratu zena, zeinari aldaketa batzuk egin zizkion Udaltzakoak 2026ko otsailaren 26an.

Kontuan izanik ordenantza horren garapena urteroko deialdien bidez egingo dela jasotzen dela.

Kontuan izanik 2026ko maiatzaren 27ko 1500/2026 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onartutako Andoaingo Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta 2014.05.27an GAO n argitaratutako Andoaingo Udalean Dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza.

Kontuan hartuta udal Kontuhartzaileak 2026.06.07an idatzitako txostena, zeinean hainbat zuzenketa proposatzen ziren.

Kontuan hartuta Udaleko euskara teknikariak 2026.06.08an idatziriko aldeko txostena.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

ERABAKI DUT

- 1.- Andoaingo euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntza publikoak emateko oinarriak 2026 urterako onartzea.
- 2.- Azaroaren 17ko 38/2003ko Dirulaguntza Orokorren Legearen (DOL) 18. artikuluan jasotzen den bezala, deialdi honi eta onuradunak jasotzen dituzten ebazpenei buruzko informazioa bidaltzea Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera (BDNS), DOLen 20. artikuluan ezarritako moduan, horrela iragarkia BDNStik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialerako bideratzeko.
- 3.- Deialdiaren honen dirulaguntzetarako 2026ko aurrekontuko 1.0600.480.335.00.01 (393) zenbakiko partidaren 14.000 euroko kopurua erabiltzea.



Andoaino Udala

4.- Deialdi hau eta bere oinarriak Udaletxeko Ohol digitalean, www.andoain.eus eta andoaindarrareuskaraz.eus webguneetan argitaratzea.

5.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitza lansailari ematea, jasota gera dadin

Hala agindu eta sinatu dut, Andoainen sinadura datan.

Idazkaria

Alkatea

